

Zentzutasuna zalantzan jartzen duen ustezko zentzugabekeria

Juan Luis Zabala

"Abeslari burusoila"
Eugene Ionesco
euskaratzailea: Jon Muñoz Otaegi
Ibaizabal, 2001

La Cantatrice chauve eskolan ezagutzeko zoria izan nuen nik irakaskuntza ertaina deitzen den horretan, institutuan. Ez zen suerte makala izan, alajaina! Oraindik ere gogoan daukat harritu eta liluratu egin ninduela zentzurik gabeko jario absurdu baina hala ere distiratsu hark. Geroztik, oholtza gainean ikusi izan dut, antzeztua, gauzatua, eta, lehen irakurketan adinako harridura ez sentitu arren, beti iruditu izan zait obra atsegina. Ez, ordea, atsegina, besterik gabe, barregarria delako eta aise irakurri edo ikusteko modukoa; atsegina, batez ere, norberaren alderdi ezkutu bat baino gehiagoren konplize egiten delako, munduan eta inguruan hobeto sentitzen laguntzen duelako, zuzentasun arrazionalaren loturetatik libreago, irakurketak edo antzezpeneak irauten duen bitartean behintzat.

Zentzurik gabeko jarioa esan dut arestian, eta ez dakit oso ondo esana dagoen hori. Ionescoren obra maite duen batek baino gehiagok errieta egingo lidake, irakurriz gero. Eta neuk ere ez dakit guztiz zentzugabea den zentzutasuna zalantzan jartzeko gai den ustezko zentzugabetasuna. Eta halakoxea da, dudarik gabe, Ionescorena.

Orain Ionescoren lana euskaraz irakurtzeko aukera dago, *Abeslari burusoila* argitaratu baitu Ibaizabal argitaletxeak, EIZIE elkarteak bideratzen duen Literatura Unibertsala bilduman. Jon Muñoz Otaegik egin du itzulpena. Ez du arlo horretan egiten duen lehena, berak itzuli baitzuen Choderlos de Laclos-en *Harreman Arriskutsuak* ere, duela ia lau urte argitaratua.

Liburu on ugari bereganatzen ari da azken urteotan euskara. Egia da ohitura faltak zaildu egiten digula (gehienoi behintzat) literatura unibertsaleko obren euskarazko itzulpenen irakurketa. Liburu honen kasuan, esaldiak laburrak eta sinpleak dira, eta irakurketa arin eta bizia egiten da. Merezi du, beraz, aproba egitea.

Maxixatzen, 2002-02